

MITUSU

BIZKAIKO HAURRENTZAKO PROGRAMAZIO ESZENIKOA

PROGRAMACIÓN ESCÉNICA PARA NIÑOS Y NIÑAS DE BIZKAIA

Ciclo Tiempo Teatral 2023 *Antzerki Denboraldia*

Material Pedagogikoa **FORMAK**

Dirulaguntzaileak / Patrocinan




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURASAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Laguntzaileak / Colaboran

Asociada a / Bazkidea



FORMAS _ FITXA DIDAKTIKOA

SARRERA

Jarduera **formaS** ikuskizun eszenikoa ikustera joatean datza. Lan hori antzerki bisualaren eta dantzaren generoen barruan sailka daiteke, hura sortzeko eta eszenaratzeko erabili diren teknikak direla eta.

Jarduera ahalik eta gehien aprobetxatzeko, bertara joan aurretik eta ondoren egiteko zeregin batzuk iradokitzen dira (*ikus jarduera didaktikoen atala*).

GURE PROPOSAMENA


2002. urteaz geroztik, Zig Zag Danza konpainiak haur eta familientzako lengoia eszeniko bat sortzeko ikerlanean jardun du, ikusleei irudi bukatuak ematen ez zaien proposamenak eraikitzeko; hala, ikusleak aktiboki parte har dezala sustatzen da.

Illo horretan, **formaS** lanean ikusleek osatzen dute azken irudia, aurkezten diren eszena guztiak eraikitzen baitira irudi amaitu bat ez emateko premisari jarraituz; aitzitik, irudi hori iradokitzea da premisa, ikusle bakoitzak bere erreferentzietatik abiatuta egin dezan azken irakurketa.

Era berean, eraldatuz doazen eszenen bilakaera osoak irakurketa eta interpretazio irekiak ditu, eta, ondorioz, pertsona bakoitzak bere irakurketa aterako du hortik. Hala, ikuspegi ireki eta askea sustatuko da, eta, aldi berean, espirtu kritikoa eta abstrakziorako eta irudi plastikoak interpretatzeko gaitasuna sustatuko dira.

Proposamen osoaren kontzeptua artisauro-prozesu bat garatuz egin da, bai ikusizko efektuei bai erabilitako materialei dagokienez. Zeharo sinpleak, guztiak ere.

Argi ultramoreak eta gorputzaren mugimendutik abiatuta materialak manipulatzeko ematen dituzten aukeretatik abiatuta, etengabe eraldatzen ari den unibertso eszeniko bat sortzen da, zeina EZ baita antzerki beltzeko ikuskizuntzat hartu behar.



Zuzendaritza, koreografia eta interpretazioa



Estrella García dantza klasiko eta espainiarreko ikasketak hasi zituen Madrilgo Arte Dramatiko, Musika eta Dantzaren Errege Goi Eskolan. Han eskuratu zuen titulua, 1986an. Dantzako Goi-mailako Gradua lortu zuen Dantzaren Pedagogiako espezialitatean, Madrilgo Dantzako Errege Kontserbatorio Profesionalean. Era berean, Dantzari aplikatutako Anatomian eta Biomekanikan diplomatu zen, Alcalá de Henaresko Medikuntza Fakultatean. Kantu, Solfeo eta Pianoko ikasketekin osatu zuen bere heziketa akademikoa.

Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren eta Asturiasko Printzerriko Gobernuaren zenbait beka jaso zituen atzerrian ikasketak egiteko, eta dantza modernoari, garaikideari eta inprobisazio-teknikei buruzko prestakuntza sendoa jaso zuen Frantzian, Austrian, Belgikan, Alemanian, Kanadan eta AEBn.


1985ean hasi zen irakaskuntzan, eta esparru horretan erreferentziako pedagogotzat hartua da. 1993tik, bere proiektu pedagogikoa zuzentzen du, eta hamarkada bat baino gehiagoz Asturiasko Printzerriko Antzerki eta Arte Eszenikoen Institutuko eta Arte Dramatikoko Goi Eskolako irakasle-lanarekin uztartu zuen zeregin hori.

1987an hasi zen bere lengoaia koreografikoa garatzen, Kaos Taller de Danza eratzeaz batera. Talde horrekiko harremanari eutsi dio gaur arte, eta hogeitaz biko gehiago sortu ditu harentzat.

Era berean, bere alderdi sortzailea garatu zuen, koreografiako errealitateei forma emanaz antzerki-, dantza-, opera-, zarzuela- eta musika-proiektuetan, Etelvino Vázquez, Aldo Tarabella, Maxi Rodríguez eta Jesús Cracio zuzendariekin batera, besteak beste.

2000. urtean bere konpainiarentzako sorkuntzak egiten hasi zen, eta, horrekin batera, hainbat aitopene eta aipamen jaso ditu, hala nola 2004ko Arte Eszenikoen Asturias Saria, *Tangos*, *historias de ayer y hoy* lanaren egiletza/koreografiagatik, Ikuskizun Onenaren eta Egiletza/Koreografia Onenaren Oh! 2013 Saria, *Después de cortar el césped*, *el valor de no hacer ruido* lanagatik, eta FESTIN 2016 Saria, bere ibilbide osoaren omenez.

Koreografia eta interpretazioa



Miguel Quiroga Gorputz Hezkuntzako irakaslea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, eta Zuzendaritza Eszenikoko Goi-mailako tituluduna Asturiasko Printzerriko Arte Dramatikoko Goi Eskolan.

1996an izan zuen dantzarekiko lehen hartu-emana, Gijónen, eta Madrilen, Bartzelonan eta Europako zenbait herrialdetan (Austria, Alemania, Frantzia, Eslovakia) trebatzen jarraitu zuen, baita Kanadan eta AEBn ere. Irakasle, koreografo eta zuzendari ospetsuekin trebatu zen dantza modernoko, garaikideko, konposizioko eta inprobisazioko tekniketari.

Estrella Garcíarekin batera, Zig Zag Danza proiektu artistikoari ekin zion 2000. urtean, eta, ordutik hona, zuzendaritza-, koreografia-, dramaturgia- eta interpretazio-lanak

egin ditu. Antzerki, opera, zarzuela eta musikako beste ekoizpen batzuetan lan egiten du unean-unean, aktore, dantzari eta koreografia-laguntzaile gisa.

2012an, Arte Eszenikoen Oh! saria jaso zuen haur txikientzako *Aupapá* ikuskizunaren kontzeptu eszenografikoagatik. Lan horren zuzendaria izan zen, gainera. 2013an, Estrella Garcíarekin batera, Autoretza/Koreografia Onenaren Arte Eszenikoen Oh! Saria jaso zuen, *Después de Cortar el Césped, el valor de no hacer ruido* obrarengatik. Horrez gain, Asturiasko Urteko Ikuskizun Onenaren saria jaso zuen lan horrek.

Halaber, hogeitau urteko esperientzia du irakasle modura, dantza garaikidearen eta inprobisazioaren alorrean. Izan ere, tailerrak eman, ditu, Espainian eta atzerrian, irakasle titular eta irakasle laguntzaile gisa.


Guri buruzko zenbait datu

2000. urtean sortu zenetik, Zig Zag Danzak mugimendua eta antzerkigintza elkartzen diren lurraldeak aztertzen ditu, eta sormenezko unibertso berezi bat eraikitzen du, non argiak, soinu-espazioak eta espazio eszenikoak protagonismoa partekatzen duten gorputzaren lengoaiarekin.

Estrella García koreografoak zuzenduta (2004ko Asturiasko Arte Eszenikoen Sariaren, 2013ko Oh! Sariaren eta 2016ko FESTIN Sariaren irabazlea, azken hori bere ibilbide osoaren omenez), konpainiak hogeit hamar ekoizpen eta koprodukzio ditu, haurrentzakoak (*Mimesis, Aupapá, FormaS, Jardín secreto*) zein helduentzakoak (*Portrait, Disonancias V18, Helladia o los cuerpos de Atalanta, Después de cortar el césped...*). Haien errepertorioak beste sortzaile batzuen piezak ere baditu; esaterako, Ramón Oller eta Marie O'Card egileenak.

Zig Zag Danza haur txikienei zuzendutako dantzaren erreferentziatzko izena da nazioartean. Gijóngo egoitzatik, konpainiak bikaintasun artistikoaren aldeko proiektu berritzaile eta artisaua defendatzen du, eta sorkuntzaren erdigunean kokatzen ditu ikusle gazteenak eta haien garapen kognitiboa.

Hainbat programaziotan izan da: FETEN, Baby Planet Jaialdia, Danza Gijón, JEN Jaialdia, Antzoki Alternatiboen RED Zirkuitua, Sevillako Dantzaren Hilabetea, El Mes Petit de Tots Nazioarteko Jaialdia, Cádizko Nazioarteko Danza Jaialdia, PLATEA katalogoa, Titulartasun Publikoko Antzoki eta Auditorioen Sarearen Danza a Escena Zirkuitua, Despertamos a las Artes Catálogo Jaialdia, Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdia, Sismograf Jaialdia, Dansa Valencia Nazioarteko Denboraldia, Aljereko Nazioarteko Jaialdia, Danza Sur Jaialdia, Palma amb la Dansa, Cuadernos Escénicos Jaialdia, GESTO Jaialdia, Txiki Txiki Txikia Jaialdia, Teatrea Jaialdia, Barruguet Jaialdia, Mostra Internacional de Sueca MIM, Aarhuseko Dance Baby Dance Festival, besteak beste.



IKASGELARAKO JARDUERAK

Proposamen didaktikoaren helburuak

- 1) Hitzik gabeko lengoaia eszenikoak haurrengana hurbiltzea, haiekiko sentsibilitatea gara dezatela sustatzeko.
- 2) Arte eszenikoak adierazpen-baliabide artistikotzat hartzea.
- 3) Ikuskizun eszenikoetara joateko ohitura normalizatzen laguntzea, haurtzaroko lehen urteetatik.
- 4) Arretaz behatzeko eta kontzentratzeko gaitasuna sustatzea.
- 5) Gorputz-lengoaia komunikazio-tresna gisa ezagutzea.
- 6) Espiritu eta gaitasun kritikoa garatzea.



Emanaldira joan baino lehen

Partaidetzazko elkarrizketa abiarazi, ikasleei galdetuz

- Azaldu zer den antzerki-ikuskizun batera joatea, zein diren antzoki baten zati nagusiak, zer den zuzeneko ikuskizun bat, nola egon behar den zuzeneko ikuskizun bat ikusten den bitartean... (*puntu hori funtsezkoa da kontuan hartuta adin horretan, ziurrenik, ikasle asko edo gehienak ez direla inoiz zuzeneko emanaldi batera joan*).
- Obraren edukiei dagokienez, honelako galderak egin: zer da zuretzat gaua, zer dira ametsak, gogoratzen duzu amestu zenuen azken gauza, kontatu ahal diezu besteei?
- Irudien konposizioa errazteko jarduera: patiora irtetea edo leihotik ateratzea, hodeiak behatzea eta iradokitzen dizkizuten forma, animalia edo objektuak deskribatzea. Saiatu horiek marrazten.

Emanaldira joan ondoren

Partaidetzazko elkarrizketa abiarazi, ikasleei galdetuz

- Zer animalia eta zer gauza ikusi dituzu ikuskizunean zehar
- Zer animalia eta zer gauza entzun dituzu ikuskizunean zehar
- Zein da gehien gustatu zaizun unea, edo ondoen gogoratzen duzuna
- Adierazi gustatu ez zaizkizun bi gauza

“Guk geure historia eraikiko dugu, ikuskizunetik gogoratzen duzuna oinarri hartuta” (taldeka)

- 1) Ikasle/ikusle bakoitzak ikuskizunari buruzko marrazki txiki bat egingo du, eszenaren batek iradoki dion elementu, landare edo animaliaren bat agertuz.
- 2) Taldeka eta lamina komun baten gainean itsasten dira marrazki horiek, konposizio bat eratuz.
- 3) Taldeko kideen artean istorio bat sortzen dute marraztu dituzten pertsonaia/elementuekin.
- 4) Taldeak sortutako istorioa azaltzen die gelako gainerako kideei, eta lamina konposatuarekin ilustratzen du.

Zig Zag Danza

Severo Ochoa 91, etxabea

Gijón-Asturias-Espainia

Tel/Fax 0034_985 391 133

info@zigzagdanza.com

www.zigzagdanza.com

